

• MATTIN •



... JULEN ZABALO

PSE-ren aniztasun kulturala



Lehenago PSE-EEK Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako proposamenak zalaparta nahikoa altxatu du, baina bada oraindik zer aipatu. Izan ere, proposamenaren bigarren puntuan, eta EGUNKARIAN jasotzen zen testuaren arabera, «Lehendakariari eskatzen dio Eusko Legebiltzarrean diren eta

elkartze horri berriz ekin nahi dioten indar politiko guztiak dei ditzala, zentzuzko epe batean osa dezaten Euskadiren aniztasun politiko eta kulturala lukeen mahai bat, zeinaren helburu lehena izango baita euskal herritarren integrazio politikoa sendotzea...».

Aspaldi honetan oso gai erabilia da Euskal Herriaren aniztasuna, eta askotan, badaezbada ere, aipatu beharra dagoela ematen du. Eta honetan horrelako zerbait gertatu dela iruditzen zait, ezen Eusko Legebiltzarreko indar politiko guztiak dei ditzala eskatzen bazaio lehendakariari, aniztasun politikoa ordezkatzeko izango da, noski, baina, inola ere ez, EAeko alderdiak, banan-banan hartuta, aniztasun kulturalaren isla direlako! Beste lekuetan horrela izaten da, baina ez EAEn, non, kopuru desberdinetan bada ere, euskaldunak eta erdaldunak, hemen eta kanpoan jaiok, euskal edo erdal jatorriko abizendunak nahasten baitira alderdi guztietan, PSE barne, hain zuzen ere.

Mahaiaren lehen helburua integrazio politikoa sendotzea da, eta, hala gerta dadin, komenigarri da banaketa etnikoak, kulturalak edo beste era batekoak ez nahastea harekin. Halaxe dio, behintzat, ordezkatzeko politikoaren teoriak, eta argi eduki du euskal nazionalismoak, oro har, bere ibilbidean zehar. PP edo PSEk aniztasun kulturalari dei egitea ez da berria, bestalde, baina badirudi mezu hau zabaldu egiten dela euskal nazionalismoaren indarra handiagoa denean. Helburu politiko argia dauka jokabideak, baina nekez lortuko da horrela integrazio politikoa.

Euskal nazionalismoari euskara eta euskal kulturaren erabilera oker eta partidista leporatu izaten zaio, baina antzera esan behar da espainiar nazionalismoa defendatu nahi dutenei buruz. PSE edo PP ez dira kultura bakar baten ordezkariak, EAeko herritar guztiengana heltzeko asmo eta deliberamendua baitaukate eta, beraz, aniztasun kulturalarena haizatzen dutenean, alderdi helburuak bilatzen ari dira. Eta hori ez da gauza ona.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Otsoak

■ EGUNKARIA-k kaleratutako otsoaren gaineko erreportaia begi bihurturik irakur zitekeen, eta metaforatzat hartu otsoa Euskal Herrira Burgostik sartzen deneko kontua. Neuk aukera baliatuko dut, baina erreportaiari kontra eginez, eta erran Nafarroan, kasu, badela otso komunitate egonkorrik. Tira, ez hain egonkorrik. Mugitzen dira beren *razzia*-tan: presoen aldeko Martxarekin duten tema ikaragarria da. Hala ere, badirudi polizien kale borroka ez dela denek irmoki eta aho batez gaitzestekoa. Badabil, baina, letagin gehiago. Irunen zenbait zorroztu berri ditu, alardearen ordutegia istilu eragile izan daitekeela gaitzigtuz. Alegia, eurak istiluak eragingo dituztela baina erantzuleak ez direla beraiek izango (hauena tradizionala ez da alardea bakarrik). Asma liteke konparazio gehiagorik, baina gera nadin: otsoarenak ere ez dira kulpa guztiak.

'Gabachos'

TXILLARDEGI

IDAZLEA

Ez naiz ni ekologian aditua. Eta ez nuen Clive Ponting-en *A green History of the World* liburua ezagutzen. 1991an ingelesez argitaratua, orain azaldu da frantsesez (*Le viol de la Terre* izenez); eta hizkuntza hau erabiltzen duten eskualdeetan zarata franko atera duelako, orain izan dut liburuaren berri.

Hauxe egia, eta nire ahulezia. Ekologiaren alde argitara den manifesturik onena hauxe baita, omen. Eta ez bainuen ezagutzen.

Baina bego hori.

Ponting irakaslea Gales-ko Unibertsitatean ari da lanean: Swansea-koan preseski, Hegoaldean.

Eta Ameriketako kolonizazioa nola gertatu zen azaltzen duelarik, laz- tu egiten du irakurlearen ilea.

Santo Domingo-ko konkistaz ari denean, adibidez (131. orr.), hau dio: «A l'époque de la conquête espagnole, l'île comptait environ un million d'habitants. Au bout de quarante ans d'exploitation intensive, d'esclavage et d'une mortalité élevée due à l'expansion de maladies européennes, il ne restait plus que quelques centaines d'indigènes». Berririo irakur, otoi.

Goazen aurrerago, eta oraingoan Mexiko-ko kolonizazioa aztergai: «Là, la population aztèque chuta de quelques 25 millions au début du XVI. siècle, à environ 6 millions en 1550, et 1 million en 1600». Horra hor Espainia-ren glorias patrias famatuak, beren egiazko itxuran: genozidio huts hutsa.

Super-Biafra mordo bat Espainiaren zerbitzutan.

Nicaraguaz aurrerago: «Dans la première moitié du XVI. siècle, on emmena dans le seul Nicaragua plus de 200.000 Indiens comme esclaves» (132. orr.)

Anti-España-ren ipuinak omen dira horiek.

Baina Fray Diego de Landa-ren

Relación de cosas de Yucatán liburua eskuragarri dago.

1572/1579 urteetan bertan Apezpiku egona, eta Madrilen defendatzaile zintzo eta porrokatua, ez zen Landa hau batere sospetxosoa edo Indioen aldekoa izan: «*Quiso hacer cristianos a los Indios por la fuerza*», zion Angel Garibaik.

Hala ere hauta ditzagun liburuko perla batzuk: «*Dice (D. de Landahorrek) que él vió un gran árbol cerca del pueblo en el cual un capitán ahorcó muchas mujeres indias en sus ramas, y de los pies de ellas, a sus hijos*» (27).

Eta aurrerago: «*Hicieron en los indios crueldades inauditas, (pues les) cortaron narices, brazos y piernas, y a las mujeres los pechos, y las echaban en las gunas hondas con calabazas atadas a los pies*» ... «*Los españoles se disculpaban con decir que siendo pocos no podían sujetar tanta gente sin meterles miedo con castigos terribles...*»

Eta abar, eta abar. Horra hor espainiar sutsu bihurtzeko arrazoi sendoak. Horiek ere glorias patrias baitira.

Ponting Clive iralaslak badaki zertaz mintzo den.

Hots, zer diote Franco-ren Kolpe militarra oraindik ere, hordialdi demokratiko betean, gaitzetsi nahi ez duten espainolista amorratuek?

Mintza bekigu denen izenean aita-ponteko ermo duten Ramiro de Maeztu

Whitney sasi-arabar fatxa ezaguna: «*No hay en la Historia Universal -zión honek- obra comparable a la*

realizada por España; porque hemos incorporado a la civilización cristiana a todas las razas que estuvieron bajo nuestra influencia...» (Defensa de la Hispanidad, 161).

Zer egin zuen Bartolomé de las Casas nazkagarri hark, adibidez, Maezturen iritziz? Garbi omen dago: «*abultar, agrandar y ponderar las crueldades inevitables a la conquista...*».

«*El Imperio Español era -azaltzen digu- una Monarquía misionera ... El principal fin de España en la ocupación del Asia, del Africa y de América, era pacificar y convertir a la Santa Fe a los naturales*». La meta era salvar las almas de los Indios (sic).

Baina 98ko belau-neko gehien funtsean bezala, gakoa besterik da: Don Ramirok ere,

espainiarrik gehienek bezala, ezin izan zuen irentsi Cubaren eta Filipinen galera koldarra. Don Ramirok voluntad de Imperio zeukan. Imperio osoa Espainia huts-hutsa zitzaion. Eta kitto.

Baina ez dezagun gaixtoki irribarre egin. Ramiro de Maeztu-ren mutilak baitaude gaur agintean Espainian; eta Euskal Herrian ere, azkeneko eraso gure begien aurrean lotsarik gabe prestatzen ari.

Guk, ordea, *eutsi goiari*. Guk *boicot a los productos franceses*. Guk euskara bazterrera, eta gatzelaniari bai, beti eta beti. Guk *gabachos*, fuera. Arazo bakarra frantxuteak direlako.

Ongi goaz.

Putzura bai. Primeran!

“
**Ramiro de Maeztu-
ren mutilak daude
gaur agintean
Espainian; eta
Euskal Herrian ere,
azkeneko eraso gure
begien aurrean
prestatzen ari dira**